

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Sentimenduen zurrumbiloa



Xabier Etxaniz Erle



Txopo

GAIZKA AROSTEGI

Ilustratzailea: Enrique Morente.
Ibaizabal, Bilbo, 2016.
96 orrialde.

Gaur egungo gaztetxoentzat *Txopo* ez da oso ezaguna izango, eta agian, bitxia egingo zaie liburuaren azalean Athletic taldeko atezain baten irudia (kromo bat) agertzea. Kontua da Arostegik 1975ean giroturiko istorio bat kontatzen digula liburu honetan, eta zeharka bada ere, Iribar atezainak paper garrantzitsua duela bertan.

“1975eko urtarrilaren 17an, Hugo, nire lagun minetako bat, hiltzeaz zegoela jakin nuen. Data ongi baino hobeto oroitzen dut. Hamar urte bete nituen egun hartan”. Horrelaxe ekiten dio Arostegik liburu honen kontakizunari; lehen pertsona narraturiko istorioa eta hamar urteko narratzailea, mutikoa, protagonista duela. Jonek Hugorena jakitean sentitzen duen tristura eta pena laguna bisitatzeko gogoarekin batzen dira. Horrela, Andoni eta Txirurekin joango da Gurutzetako ospitalera, laguna ikustera: “Argalago zegoen. Larruak kolore histua zeukan eta begiek lehenagoko distira alaiak galdu zuten”.

Irakurleak, liburuak kontakizunaren tonuagatik, nabari dezake heriotzaren presentzia, lagunaren galerarena, baina baita haurren ausardia eta inozentzia ere.

Hugok, lagunak agurtzean, honako komentario hau botatzen du: “Nire ametsa Iribar bezalakoa izatea zen, Athleticetako atezain, eta pena pixka bat ematen dit bera ezagutu gabe hiltzeak. Seguru nago gizon jatorra dela”.

Hiru mutikoak burumakur ateratzen dira laguna ospitalean hain larri utzita; eta bueltak ibiliko dira Hugori alaitasuna edo pozen bat nola eman, harik eta gaztetxoaren ametsa egia bilakatzeko bideari ekiten dioten arte. Hugok Iribar ezagutu behar du.

Eta hortik aurrera, egoera eta testuinguru horretan bada ere, badirudi egileak abenturazko nobela batean sartzen gaituela. Nola atera Hugo ospitaletik eta Lezamaraino eramane (protagonistak haurrak dira, hau da, diru gutxi dute, eta gainera, 1975ean gaude).

Irakurlea harrapatuta dago mutikoen abentura horretan; etsipen eta errealismo puntu batekin bereganatzen ditu protagonisten asmoak, horiek hutsean geratu baitira ospitaletik irtetean. Gurasoek, baita Hugorenek ere, haserretu beharrean eskerrak ematen dizkiete mutikoaren baitan sortutako poz uneagatik. Jonek, Andonik, Txiruk eta Sarak orduan, beste ideia bat dute. Iribar bera joan dadila Hugo bisitatzera, horretarako atezainarengana iritsi beharko dira eta azaldu Hugori gertatzen zaiona eta mutikoaren desioa.

Gaizka Arostegik aurretik ere erakutsi digu istorioak eta abenturak kontatzeko duen abilezia, eta oraingoan lortzen du irakurleak sentimendu eta gora-beherez beteriko nobela honetan harrapatzea. Sentimendu mota askotakoak, lagunaren galera, baina baita maitasun, etsipen edo lortutakoagatik poza ere. Eta hori dena ekintzez beteriko zurrumbilo batean; gertakariak ondo ez atera arren, apurka eta harietatik tiraka helburua lortu arteko zurrumbiloa. Ekintzen eta sentimenduen zurrumbiloa. ■

Gaizka Arostegi (Portugalete, 1965) idazlea, musikaria eta dokumental egilea.

